

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO  
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EKONOMIA SUSTAPENEN ETA  
PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

«Enpresak Hazten» dirulaguntza programaren oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2025eko apirilaren 29ko bilkuran.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, 2024-2027 Plan Estrategikoarekin eta, bereziki, III. ardatzarekin eta 3.3 helburu estrategikoarekin «Lehiakortasun gaitasunak eta aukerak sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz eta/edo eraldatuz eta berriak sustatuz» bat etorritz, lurraldeko enpresa sare indartzera, lehiakortasuna hobetzera eta merkatuaren erronketara egokitzen laguntzera bideratutako garapen estrategia bat bultzatzen du. Etengabe eboluzionatzen ari den enpresa sare dinamikoko batek aukera ematen du kalitatezko enplegua sortzeko, inbertsioa handitzeko, berrikuntza sustatzeko eta enpresek merkatu nazionaletan eta nazioartekoetan duten posizioa indartzeko. Digitalizazioa, industria eraldaketa eta gero eta lehia handiagoa ezaugarri dituen testuinguru global honetan, funtsezkoa da enpresek laguntza mekanismoak izatea, hedatzen, sendotzen eta dibertsifikatzen laguntzeko.

Alde horretatik, enpresen hazkunde gaitasuna funtsezko elementua da lurraldearen egonkortasun ekonomikoa eta etorkizunerako proiektzioa bermatzeko. Zentzu horretan, enpresa egitura sendoagoak sustatzea, lurraldearen barruko merkataritza harremanak indartzea eta merkatu berrietara irekitzea funtsezko ardazak dira ekonomia dinamikoa eta erresilientea bultzatzeko.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Enpresak Hazten dirulaguntza programaren barruan, enpresen hazkunde bultzatzeko laguntza lerro espezifiko hauek diseinatu ditu:

1. Enpresen hazkundera, bat-egiteen eta erosketen bidez.

Laguntza lerro hau beste enpresa batzuekin integratuz hedatu nahi duten enpresei zuzenduta dago. Horrek aukera ematen die dimentsio handiagoa lortzeko, eraginkortasun operatiboa hobetzeko eta merkatu berrietara sartzeko. Bat-egite eta erosketa prozesuen bidez, enpresa egitura lehiakorragoak sortzen laguntzen da, eta haien hazkunde bultzatzeko baliabide estrategikoak eskuratzea errazten da. Gainera, eragiketa horiei esker, kudeaketa optimizatu, ezaugarriak partekatu eta sinergiak sor daitezke, berritzeko eta nazioartekotzeko gaitasunak indartuz.

2. Enpresen hazkundera, negozio ildo berriak aztertuz.

Laguntza lerro hau jarduera dibertsifikatu eta merkatu aukera berriak aprobetxatu nahi dituzten enpresei zuzenduta dago. Produktu berrien garapena, jarduera arlo berrien irekiera eta negozio ereduen eraldaketa bultzatzen ditu, ingurune ekonomikoaren aldatetara eta merkatuaren eskari berrietara estrategikoki egoki-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA  
Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

Bases reguladoras y convocatoria 2025 de las subvenciones del programa «Enpresak Hazten».

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 29 de abril de 2025.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en coherencia con el Plan Estratégico 2024-2027 y, en especial, con su Pilar III y su Objetivo Estratégico 3.3: «Promover capacidades y oportunidades competitivas mediante la consolidación y/o transformación de los sectores económicos y la promoción de nuevos», impulsa una estrategia de desarrollo orientada a fortalecer el tejido empresarial del territorio, mejorar su competitividad y facilitar su adaptación a los retos del mercado. Un tejido empresarial dinámico y en constante evolución permite generar empleo de calidad, incrementar la inversión, fomentar la innovación y fortalecer la posición de las empresas en los mercados nacionales e internacionales. En un contexto global caracterizado por la digitalización, la transformación industrial y la creciente competencia, resulta fundamental que las empresas dispongan de mecanismos de apoyo que faciliten su expansión, consolidación y diversificación.

A este respecto, la capacidad de crecimiento de las empresas es un elemento esencial para garantizar la estabilidad económica del territorio y su proyección a futuro. En este sentido, la promoción de estructuras empresariales más robustas, el refuerzo de las relaciones comerciales dentro del territorio y la apertura a nuevos mercados son ejes fundamentales para impulsar una economía dinámica y resiliente.

En este marco, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha diseñado las siguientes líneas de ayuda específicas dentro del programa Enpresak Hazten de subvenciones para apoyar el crecimiento empresarial:

1. Crecimiento empresarial a través de fusiones y adquisiciones.

Esta línea de ayuda está dirigida a empresas que buscan expandirse mediante la integración con otras compañías, permitiéndoles alcanzar una mayor dimensión, mejorar su eficiencia operativa y acceder a nuevos mercados. Mediante procesos de fusión y adquisición, se favorece la creación de estructuras empresariales más competitivas y se facilita la captación de recursos estratégicos para potenciar su crecimiento. Además, estas operaciones permiten optimizar la gestión, compartir conocimientos y generar sinergias que refuercen la capacidad de innovación e internacionalización.

2. Crecimiento empresarial explorando nuevas líneas de negocio.

Esta línea de ayuda está orientada a empresas que buscan diversificar su actividad y aprovechar nuevas oportunidades de mercado. Impulsa el desarrollo de nuevos productos, la apertura de nuevas áreas de actividad y la transformación de modelos de negocio, favoreciendo una adaptación estratégica a los cambios

tzen lagunduz. Horrela, enpresek beren jarduera eremua zabaltu, arriskuak murriztu eta epe luzerako lehiakortasuna indartu dezakete.

Testuinguru horretan, Enpresak Hazten programak funtsezko zeregina betetzen du, estrategia horiek bultzatzeko behar den laguntza esparrua ematen baitu, enpresei hazteko, sendotzeko eta dibertsifikatzeko aukera emango dieten baliabideak eta tresnak eskuratzeko aukera emanez. Enpresen hazkunde horrek, aldi berean, lurraldearen egitura ekonomikoa indartzen du, enplegua sortzea areagotzen du eta tokiko produkzio ekosistemaren lehiakortasuna indartzen du.

Dirulaguntza lerro hau ez dago sartuta 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE). Beraz, onartu aurretik, sartu egin behar da.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatu Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

#### ERABAKITZEN DU

**Lehenengo.** «Enpresak Hazten» programa Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartzea.

**Bigarren.** Onestea «Enpresak Hazten» programako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, erabaki honen I. eranskinean jasota daudenak, eta oinarri arautzaile espezifikoak, erabaki honen II. eta III. eranskinetan jasota daudenak.

**Hirugarren.** Onestea dirulaguntza hauen 2025eko deialdia, erabaki honen IV. eranskinean jasota dagoena.

**Laugarren.** Baimentzea milioi bat eta zazpiehun mila euroko gastua (1.700.000,00 €), 2025eko deialdiari aurre egiteko, aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

a) Bat-egite eta eskuratzeko prozesuen bidez enpresen hazkunde bultzatzeko lerroko proiektuak eta jarduerak finantzatzeko (II. eranskina), 700.000 €:

- 1.0510.100.470.00.12 2025: 392.000 €.
- 1.0510.100.481.00.16 2025: 98.000 €.
- 5.0510.100.470.00.12 2026: 168.000 €.
- 5.0510.100.481.00.16 2026: 42.000 €.

b) Negozio lerro berriak esploratzeko lerroko proiektuak eta jarduerak finantzatzeko (III. eranskina), 1.000.000 €:

- 1.0510.100.470.00.01 2025: 560.000 €.
- 1.0510.100.481.00.15 2025: 140.000 €.
- 5.0510.100.470.00.01 2026: 240.000 €.
- 5.0510.100.481.00.15 2026: 60.000 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Zenbateko gehigarria eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa izango da dirulaguntzak emateko ebazpena eman baino lehen kreditua erabilgarri dagoela adieraztea.

**Bosgarren.** Erabaki honen bidez onetsitako oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseil-

del entorno económico y a las nuevas demandas del mercado. Así, las empresas pueden ampliar su ámbito de actuación, reducir riesgos y fortalecer su competitividad a largo plazo.

El programa Enpresak Hazten, en este contexto, desempeña un papel clave al proporcionar el marco de apoyo necesario para impulsar estas estrategias, facilitando el acceso a los recursos y herramientas que permitan a las empresas crecer, consolidarse y diversificarse. Este crecimiento empresarial, a su vez, fortalece la estructura económica del territorio, incrementa la generación de empleo y refuerza la competitividad del ecosistema productivo local.

La presente línea de subvención no se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 (PES). Por tanto, previamente a su aprobación, procede su inclusión.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

#### ACUERDA

**Primero.** Incluir el programa «Enpresak Hazten» en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Segundo.** Aprobar las bases reguladoras generales de dichas subvenciones, que se incorporan como anexo I, así como las bases reguladoras específicas, que se incluyen como anexos II y III del presente acuerdo, para la concesión de las subvenciones del Programa «Enpresak Hazten».

**Tercero.** Aprobar la convocatoria 2025 de las citadas ayudas, que se acompaña como anexo IV al presente acuerdo.

**Cuarto.** Autorizar un gasto por importe de un millón setecientos mil euros (1.700.000,00 €) para hacer frente a la convocatoria de 2025 con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

a) Para la financiación de proyectos y actuaciones de la línea para impulsar el crecimiento empresarial mediante el apoyo a procesos de fusiones y adquisiciones (anexo II), 700.000 €:

- 1.0510.100.470.00.12 2025: 392.000 €.
- 1.0510.100.481.00.16 2025: 98.000 €.
- 5.0510.100.470.00.12 2026: 168.000 €.
- 5.0510.100.481.00.16 2026: 42.000 €.

b) Para la financiación de proyectos y actuaciones de la línea para explorar nuevas líneas de negocio (anexo III), 1.000.000 €:

- 1.0510.100.470.00.01 2025: 560.000 €.
- 1.0510.100.481.00.15 2025: 140.000 €.
- 5.0510.100.470.00.01 2026: 240.000 €.
- 5.0510.100.481.00.15 2026: 60.000 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

**Quinto.** Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra el recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Con-

luari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2025eko maiatzaren 5a.—Idazkari teknikoa, ez dagoenez, Iñaki Egizurain Nebreda, Lege Aholkularitza eta Koordinazioaren zuzendaria. (3400)

#### I. ERANSKINA

*«Enpresak Hazten» programaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak.*

##### 1. oinarria. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen xedea da «Enpresak Hazten» programaren dirulaguntzak ematea arautzea. Programa horren helburua da enpresen hazkundera bultzatzea, enpresa ehuna sendotuz eta indartuz, bi jarduera motaren bidez:

— Enpresa hazkundera, bat egiteen eta erosketen bidez, hazkunde ez-organikoa.

— Enpresa hazkundera, negozio ildo berriak aztertuz, hazkunde organikoa.

##### 2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1. Oinarri arautzaile hauetan ezarritako laguntzen onuraduntzat hartuko dira oinarri espezifikoetan jarduera motaren arabera zehaztutakoak.

2.2. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun izan daitezke aurreko apartatuan aipatzen diren entitateak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

— Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea.

— Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan 2. apartatuak adierazitako debeku kasuetako baten mende ez egotea.

Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko aitortpen bat aurkeztuko du.

— Zerga betebeharraren eta Gizarte Segurantzako betebeharraren egunean egotea.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Eskaeran berariaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

##### 3. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Dirulaguntzen lerro bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztuko dira dirulaguntzaren xede diren jarduketak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.2. Aintzat hartuko dira soilik dirulaguntzaren xede den proiektuarekin zantzarik gabe identifikatu daitezkeen gastuak.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko.

Ez dira diruz lagunduko 300 eurotik beherako gastuak.

sejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 5 de mayo de 2025.—El secretario técnico, por ausencia, el jefe de Sección de Asesoramiento Jurídico y Coordinación, Iñaki Egizurain Nebreda. (3400)

#### ANEXO I

*Bases reguladoras generales para la concesión de las subvenciones del programa «Enpresak Hazten».*

##### Base 1.ª Objeto de la subvención.

Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de subvenciones del programa «Enpresak Hazten», cuyo fin es impulsar el crecimiento empresarial, contribuyendo con ello a la consolidación y fortalecimiento del tejido empresarial, a través de dos tipos de actuaciones:

— Crecimiento empresarial a través de fusiones y adquisiciones, crecimiento inorgánico.

— Crecimiento empresarial explorando nuevas líneas de negocio, crecimiento orgánico.

##### Base 2.ª Requisitos de las entidades beneficiarias.

2.1. Tendrán la consideración de beneficiarias de las ayudas establecidas en las presentes bases reguladoras las definidas en las bases específicas en función del tipo de actuación.

2.2. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las entidades a que se refiere el apartado anterior, siempre que reúnan los siguientes requisitos:

— No estar afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— No estar sometidas a ninguno de los supuestos de prohibición previstos en el artículo 23, apartado 2.º del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia machista contra la Mujer.

La acreditación de estos requisitos se efectuará mediante la presentación de una declaración responsable.

— Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; en caso de que ello no fuera posible, podrá requerirse excepcionalmente su aportación por la persona solicitante.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar las correspondientes certificaciones expedidas por las instancias administrativas de Hacienda y Seguridad Social.

##### Base 3.ª Gastos subvencionables.

3.1. En las bases específicas de cada línea de subvención se detallarán las actuaciones objeto de subvención y los gastos susceptibles de apoyo.

3.2. Solo se considerarán los gastos que puedan identificarse inequívocamente con el proyecto objeto de la subvención.

No tendrá consideración de gasto elegible el Impuesto sobre el Valor Añadido.

No se considerarán subvencionables los gastos inferiores a 300 €.

#### 4. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

4.1. Lankidetzat-proiektuen kasuan, negozio-ildo berriak arakatzeko lerroan baino ez dira onartuko (III. eranskina), eta parte hartzen duen entitate bakoitzak bere eskabidea aurkeztu beharko du.

4.2. Eskaerak eta erantsitako dokumentazioa bitarteko elektronikoa erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), dirulaguntzen atarian sartuz eta horretarako eskuragarri dagoen eskabidea betez. Eskaera orria eta hari erantsitako dokumentazioa aurkezteko orduan kontuan hartuko dira, alde batetik, foru administrazioaren esparruan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, eta, bestetik, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duen irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretua.

4.3. Deialdiari buruzko informazioa eskuragarri egongo da Gipuzkoako Foru Aldundiko «dirulaguntzen atarian»: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>.

4.4. Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

4.5. Eskaera egiten duten erakundeak ez daude behartuta aurretik Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztutako dokumentuak aurkezttera. Ondorio horietarako, erakunde eskatzaileak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua zehazten duenari jarraituz. Kasu horietan, eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer organo edo dependentzian aurkeztu edo igorri ziren aipatutako dokumentuak. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumendunak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste inolabait egiaztatu ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

4.6. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriak, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran.

4.7. Aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko behar adina dokumentu eta informazio eska ditzake Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak.

#### 5. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura.

5.1. Dirulaguntzak emateko prozedura elkarrekiko norgehiagoka izango da, oinarri espezifikoetan jasotako laguntza lerro bakoitzeko deialdia eta hautaketa prozedura bakarra eginez.

5.2. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publikoaren bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

#### 6. oinarria. Balorazio irizpideak.

Eskaerak oinarri arautzaile espezifikoetan jarduera lerro bakoitzarako zehazten diren irizpideen arabera baloratuko dira.

#### 7. oinarria. Finantzazioa.

Emango diren dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu dira. Deialdian ezarriko da zein aurrekontu kredituren kargura finantzatu diren dirulaguntzak.

#### Base 4.<sup>a</sup> Forma y plazo de presentación de solicitudes.

4.1. En caso de proyectos en colaboración, estos solo se admitirán en la línea destinada a explorar nuevas líneas de negocio (anexo III), debiendo cada entidad participante presentar su propia solicitud.

4.2. Las solicitudes, junto con el resto de documentación, deberán presentarse, vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), accediendo al portal de subvenciones y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral y el Decreto Foral 40/2006, de 12 de septiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

4.3. La información de la convocatoria estará disponible en el «Portal de subvenciones» de la Diputación Foral de Gipuzkoa <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones>.

4.4. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

4.5. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente a la Diputación Foral de Gipuzkoa. A estos efectos, la entidad solicitante deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En estos casos, deberán indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos dichos documentos. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la entidad solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

4.6. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

4.7. El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

#### Base 5.<sup>a</sup> Procedimiento de concesión.

5.1. El procedimiento de concesión de la subvención será el de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único por cada una de las líneas de apoyo recogidas en las bases específicas.

5.2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante la convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

#### Base 6.<sup>a</sup> Criterios de valoración.

Las solicitudes se valorarán de acuerdo con los criterios que para cada una de las líneas de actuación se fijan en sus bases reguladoras específicas.

#### Base 7.<sup>a</sup> Financiación.

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

#### 8. oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa.

8.1. Dirulaguntza zenbatekoa izango den erabakitzeak, kontuan hartuko da erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa, batetik, eta aurrekontu baliabideak eta oinarri hauetan dauden balorazio irizpideak, bestetik.

8.2. Entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua edo ondoren egindako aldaketak, dirulaguntza kopurua zehazteko eredutzat erabiliko dira. Dirulaguntza jarduera kostuaren ehuneko bat izango da eta dirulaguntzaren kopurua guztira ezingo da izan hasieran emandakoa baino handiagoa.

8.3. Dirulaguntzen ehunekoa eta gehieneko zenbatekoa dirulaguntza lerro bakoitzean zehaztuko da.

8.4. Dirulaguntza inoiz ez da diruz lagundutako jardueraren kostu osoa baino handiagoa izango.

#### 9. oinarria. Prozedura antolatu eta izapidetzeko eskumena duen organoa.

9.1. Ekonomia Sustapeneko Zerbitzua izango da prozedura abian jarriko duen organoa.

9.2. Aurkeztutako eskaerak aztertu eta baloratzeko, ondorengo kideek osatuko duten Balorazio Batzordea eratuko da:

- Ekonomia Sustapeneko zerbitzuburua.
- Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuko teknikari bat.
- Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko idazkari teknikaria edo haren ordezkaria.

9.3. Aurkezten diren eskaerak egoki baloratzeko, aholkularizako zerbitzuak eta txosten teknikoak eska ditzake batzordeak.

#### 10. oinarria. Eskaerak ebaztea.

10.1. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak ebartziko du dirulaguntzak ematea edo ez.

10.2. Dirulaguntza emateko edo, hala badagokio, ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari. Hala ere, dirulaguntzak ematen dituen organoak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17. artikuluan ezarritako baldintzetan.

10.3. Onuradunak 10 eguneko epea izango du, jakinarazpenaren datatik aurrera, dirulaguntza onartzeko. Kontrakoa berariaz jakinarazten ez bada, tazituki onartutzat joko da. Gerora uko eginez gero, garaiz eta argi justifikatu gabe, ez-betetzetzat hartuko da, eta zigorra ezarri ahal izango da.

10.4. Deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita sei hilabeteko epean ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, eskaera administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

#### 11. oinarria. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

11.1. Erakunde onuradunek dirulaguntza onartzeak berekin dakar oinarri hauetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, hura garatzeko erregelamenduan (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua) eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko gainerako araudian oro har ezarritako betebeharrak betetzea, baita honako konpromiso hauek hartzea ere:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legean ezarritako irizpide nagusiak betetzea diruz lagundutako jardueretan,

#### Base 8.ª Cuantía de las subvenciones.

8.1. El importe subvencionable y la subvención se fijarán con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración definidos.

8.2. El presupuesto presentado por la entidad solicitante o sus modificaciones posteriores servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose ésta como un porcentaje del coste final de la actividad, sin que el importe final de la subvención pueda superar el inicialmente concedido.

8.3. El porcentaje e importe máximo de las subvenciones a conceder se determinará en cada una de las líneas de subvención.

8.4. Las subvenciones en ningún caso podrán superar el coste total de la actividad subvencionada.

#### Base 9.ª Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.

9.1. El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Promoción Económica.

9.2. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión Evaluadora en la cual participarán los siguientes miembros:

- Jefe/a de Servicio de Promoción Económica.
- Técnico/a del Servicio de Promoción Económica.
- Secretario/a Técnico/a del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos o persona en quien delegue.

9.3. Dicha Comisión podrá solicitar el asesoramiento y la emisión de los informes técnicos pertinentes para una adecuada valoración de las solicitudes presentadas.

#### Base 10.ª Resolución de la concesión.

10.1. La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos.

10.2. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará individualmente a cada solicitante. No obstante, el órgano concedente publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las subvenciones concedidas según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

10.3. La entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de 10 días, a partir de la fecha de la notificación, para su aceptación, que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario. Cualquier renuncia posterior, sin justificación temprana y clara será considerada como incumplimiento y podrá ser objeto de sanción.

10.4. Transcurrido un plazo de seis meses, contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria, sin haberse notificado resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo.

#### Base 11.ª Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.

11.1. La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en las presentes bases, en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones, así como el compromiso de:

- Cumplir en sus actuaciones subvencionables con los principios generales establecidos en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra la

bereziki alderdi hauei dagokienez: hizkera eta irudiak modu ez sexista erabiltzea eta diruz lagundutako jardueran genero adierazleak sartzea.

— Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren komunikazioetan, materialen edizioan eta dibulgazio jardueretan.

— Departamentuak dirulaguntzaren xederako ematen duen finantzaketari beharrezko publizitatea ematea. Horretarako, haren irudi instituzionala sartuko da, finantzaketa publikoari eta esku-hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta abarretan, hedabideetan egiten diren aipamenekin batera.

11.2. Diruz lagungarri izateak berekin dakar erakundeek Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari proiektuari buruzko informazioa ematea eta baimena ematea komunikaziorako erabil dezaten, betiere baliabide publikoen erabilaren gardentasuna sustatze aldera.

11.3. Laguntza onartzearekin, onuradunak baimena ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari legez dagozkion edo programaren kofinantzazioagatik aplikatu dakizkiokeen datu baseetan sartzeko dirulaguntzari buruzko informazioa.

11.4. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen bitartez osorik edo zati batean erositako ondasun inbentariagarriak edo bestelako aktiboak dirulaguntza eman zen helbururako erabiliko dira, gutxienez bost urteko epean.

Aurreko paragrafoan aipatutako baldintza hori ez betetzeak dirulaguntzaren itzulketa eragingo du, eta 16. oinarrian ezarrita dagoena bete beharko da.

**12. oinarria.** *Beste dirulaguntza batzuekin duten bateragarritasuna edo bateraezintasuna.*

12.1. Oinarri arautzaile hauetan ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira Estatuko, Europar Batasuneko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzakeen beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, betiere 8 oinarrian aurreikusitako intentsitateak gainditzen ez badituzte. Intentsitate horiek, proiektu tipologia bakoitzerako oinarri espezifikoetan zehazten dira.

Hala ere, ez dira bateragarriak izango Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.

12.2. Entitate onuradunak oinarri arautzaile hauen babesean emandako dirulaguntzekin bateragarri den beste dirulaguntzaren bat lortzen badu, modu frogagarri jakinarazi beharko dio dirulaguntza ematen duen organoari.

**13. oinarria.** *Dirulaguntzen ordainketa.*

13.1. Ordainketa dirulaguntza jaso duen jarduerak gauzatzeko justifikazioa aurkeztu eta gero egingo da.

Hala ere, diruz lagundutako proiektuak hasi eta garatu ahal izateko funtsak eman behar direnez, eta kontuan hartuta egungo finantza zailtasunak oztupo handia direla berehalako emaitzarik ez duten eta inbertsio handia dakarten epe ertain-luzerako proiektuak gauzatzeko, ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira, bermerik gabe, betiere aurrekontu baliabiderik badago, proiektu bakoitzean proiektuaren hasiera eta aurrerakinaren beharra justifikatu ondoren. Ordainketa horiek emandako dirulaguntzaren % 85 artekoak izan daitezke.

Gainerako kopurua proiektuaren amaieran eta 14. oinarrian ezarritako kontu zuritzailea aurkeztean ordainduko da.

Mujer, en especial en lo que concierne a los siguientes aspectos: uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, e inclusión de indicadores de género en la actividad subvencionada.

— Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado.

